

## **Orreaga, Nafarroa eta Euzkadi**

*Deia*, 1977-08-12.

Datorren astelenean, hilak 15, Ipar-Euzkadiko mendietan suak piztuko dituzte.

Ospaketa, euskaldun guziori dagokigu.

Egun hortan hasiko da orain dela 1.200 urte euskaldunek Carlomagno handiaren gudaritaldea porrokatu zutenaren urteburua.

Gertaera hauxe da: 778an gaude; euskaldunak orduan ere bi arerio artean daude: hegoan, moroak, eta iparrean frankoak; Carlomagno enperadorea nagusiki dabil Europan, baina Zaragoza eta Iruña-tik bueltan gorantz dijoala hor daude Orreaga-ko mendi tontorretan euskaldunak zai, eta zeramatzan indar guziak porrokatzen dizkiote.

Carlomagno bera ere euskaldunen eskuetan erortzeko arriskoa ibili zen.

Gertaera honek zerbait erakusten digu gaur:

1.- Orduan gertatutakoaz ez dugu euskaldunok ezer ere gogoan gorde; arerioak berak aitortu du hoientzat izan den hondamen hau; eta aitormena berak salatzen du, noski, egia dela.

Gureak ere besten esku uzte honek ekarri dio gure historiaren egiari hainbat gezurren kaltea.

2.- Orain Nafarroaz sarritan ari bagara, hemen dugu berriz ere aitatzeko aukera eder bat.

Hau gertatu eta laster, Baskoniako Dukatuaren ondorio gisa, sortzen da Iñigo Aritza-ren gidaritzapean lehenengoz Iruñako eta gero Nafarroako deitzen den Erresuma.

Honen garrantzia handia da, hemen baigau lehenengo aldiz sei eskualdeak elkarrekin Estatu politiko indartsu bat osatzen.

Ia bostehun urte irauten du osorik, 1200an Gipuzkoa eta gero beste anaiak sakabanatzen asten diren arte.

Nafarroa izan da, beraz, Euskal Herri osoa Estatu bezala bizi zenean, buru izan dena.

Orduko gure Euzkadi.

Ez al da Ipar Euzkadikoen antzera, Hegokoak ere gure mendi tontor nagusietan suak pizteko eguna?